

Kooperatibak



ULA IRURETAGOIENA

Kooperatiben mugimenduak eus-
kal nortasunaren sakoneko afektu
bat esnatzen du gehienetan. Kon-
tzeptuarekiko gertutasun, harrotasun,
lurraldetasun bat. Eta bizirik dabil, koo-
peratibek gaurkotasun handia irabazi
dutelako, ez da iraganeko historiako
ekimen euskaldun bat. Kapitalismoaren
bizitza harrapatzeko erraztasunaz eta
diruarekiko sortzen duen menpekotasu-
naz jabeturik alde batetik, eta garaikide-
tasunaren energia, elikadura, zaintza eta
ekologia krisialdiez kontzientziaturik
bestetik, kooperatibek arnagune po-
sible bat irudikatzen dute askorentzat.
Egituraren barne, arrakalatxo bat.

Herri-kooperatiben mugimendua,
modu isolatuan bada ere, arrakasta han-
diak sortzen ari da landa eremuetan batik
bat, herriko denda, okindegia, ostatua
edo taberna kooperatiba moduan irekita
mantentzea lortzen dutenean. Biztanleez
husten ari den landako herrietan ondo
dakite zenbait aktibitate ekonomiko
martxan izatea soldata bat eskuratzetik
haratago doala, bizigarritasun-guneak
direla eta komunitatea eraikitzeko bide.
Herritarrak bazkide bilakatzen direnean,
herriko ehundura kontsideratzen dituz-
ten aktibitateak bultzatzeko, eraikinak
berritzeko edo elikagaiak ereiteko, eko-
nomia lokal eta komunitarioa sortzen da.
Lurraldearekiko atxikimendu bat, tokiko-
tasunaren izaera propio bat dirua irabaz-
tetik eta kontsumo neurotikotik urrutira-
tzen dena, lan duinak sortzearen aldekoa
eta interes publikoaren zerbitzutan.

Herri-kooperatibek lurralde buruja-
betza dute jomugan eta beraz, lurraldea
eraikitzeko tresna dira. Energia komuni-
tateak, agroekologiako nekazaritza eta
baso zaintza taldeak, haur eta helduen
zaintza, eraikinen eraikuntza-egunera-
keta lanak, lagapeneko etxebizitzak...
Administrazio publikoa erantzule da
kooperatibak egituretan gobernantza
izateko aukera sortzea eta beharrezkoa
duten espazio fisikoak eskuratzeko bi-
dea egitea. Saretutako kooperatiben bi-
dez mantendu daiteke bizitzak eusteko
beharrezkoa den ehundura bat. Hori da
behar dugun utopietako bat. ●



NATO eta *daddy*

URKO APAOLAZA AVILA

Hagan ekainaren 25ean NATOk egindako goi-bileran, gastu militarra he-
rrialde bakoitzaren BPGaren %5 izateko konpromisoa hartu dute Aliantza
Atlantikoko Itunaren Erakundeko kide diren estatuak. Horretarako hamar
urteko epea izango dute, 2035 arte. Erabaki horrekin, 2014an ezarritako %2ko
helmuga askogatik igo dute, eta urteko aurrekontuaren zati handi bat gastu mili-
tarrera bideratu beharko dute NATOk 32 herrialdeek, salbuespenik gabe. Gastu
militar zuzena %3,5 izango da, eta %1,5 gastu militar eratorria (zibersegurtasuna,
azpiegiturak, mugen zaintza...). Erabili duten argudioa izan da errusiar "meha-
txuaren" aurrean euren "segurtasuna" bermatzeko prest egon behar direla. Eta
horrela, Anne Morelli historialariak teorizaturiko gerra propagandaren printzipio
nagusietako bat dakusagu: "Ez dugu gerrarik nahi, soilik defendatzen ari gara!".

NATOk idazkari nagusi Mark Rutte ipurtzuriaren losintxen artean, AEBetako
presidente Donald Trumpek "garaipen monumentala" izan dela esan du bere ohiko
tonuan. Denek sinatu dute *daddy* Donaldekin –horrela deitu dio Ruttek, "aitatxo"–
nahi zuen dokumentua. Espainiako Estatuak ere sinatu du, Pedro Sánchezek ziur-
tatu arren ez dagoela hori konplitzera derrigortua, dirudienez Rutteren gutun bat
duelako "malgutasuna" ematen diona. Espainiar mandatariak goi-bileraren aurre-
tik esana zuen ez dagoela %5era iristeko prest, gastu sozialean eragin zuzena izango
duelako –eta bazkide dituen bere gobernuak beste alderdiek ez dutelako halakorik
onartuko–. Ruttek, baina, ironikoki erantzun dio –"ados gaude ez gaudela ados"– eta
argitu du Espainiak ere bete beharko dituela bere *obligazioak* NATOk kide bezala.
Trumpek, bere aldetik, gerra komertzialarekin egin dio mehatxu Espainiari.

Baina goi-bileraren showak ezin du gure begirada desbideratu benetan garran-
tzitsua den horretatik: AEBen presioaren ondorioz NATOk herrialdeei inposatu
diela askoz diru gehiago gastatzea armak erosten. Monumentala koanto.

Europar Batasuneko herrialdeek urtean 900.000 milioi euro bideratu behar-
ko dituzte arlo militarrean. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak, Ongi
Etorri Errefuxiatuak eta Gaugerora pentsionisten mugimenduak diote horrek
murrizketak ekarriko dituela osasungintzan, pentsioetan eta klima larrialdiaren
kontrako borrokan; eta salatu dute Eusko Jaurlaritza zein armagintzaren Euskal
Herriko lobbya –besteak beste Zedarrak foroa– horixe elikatzen ari direla. Eta
dena, urteko hitz bihurtu zaigun segurtasunaren izenean. ●